KRITIKA

Ase gabe

IBON EGAÑA

TITULUA: **'ZINTZOEN SALDOAN'** EGILEA: **JON ALONSO** ARGITALETXEA: **TXALAPARTA**

JON Alonsoren *Camembert helburu* liburu kutunetakotzat duen irakurle honek gogotsu hartu du iruindarraren nobela berria, besteak beste, 1998ko saiakera-eleberri hartako protagonista, Enekoitz Ramirez, *berpiztu* duelako kontakizun berrian. Baina agian espektatibak goraxeegi jartzeagatik beragatik, ez du erabat asebete *Zintzoen saldoan* lan berriak.

Interesgarria du nobelak abiapuntua: Ramirez, beste kide batzuekin batera, eliteko euskal sukaldarien jatetxeetan *paloak* ematen ibili da. Sukaldari bat hilik agertu dela eta erruduntzat joa, kartzelatik sartu-irten laburra eginda libre geratuko da, abokatu baten *eskuzabaltasunari* esker. Ezer ez da debalde, jakina, are gutxiago eleberri beltzetan, eta aske geratzearen truke sukaldarien munduan, eta orotariko jende-klasearekin nahastu beharko du protagonistak. Badu, beraz, bestelako parekotasunik nobela berriak *Camembert helburu* harekin, protagonistaz gain: kutsu poliziako eta beltzeko ikerketa baten aitzakian kultur esparru baten gainekogogoeta eta kritika zorrotza bilatu du Alonsok batean zein bestean (arte garaikidearen esparrua batean, sukaldaritzarena bestean), mundu horien tripa ilunetaraino jaitsita.

Desberdintasun nagusi bat ere badakar, baina, *Zintzoen saldoan* honek *Camembert helburu*-rekiko, hots, oraingoa nobela beltzaren egiturari estuago lotzen zaion kontakizuna da, ez *nobelaz mozorrotutako saiakera*. Pisu handiagoa du tramak, beraz, erritmoa ere biziagoa du narrazioak, eta leku txikiagoa digresioek. Pertsonaien arteko elkarrizketak, esaterako, oso biziak dira, bikain eraikiak. Haatik, egileak hau nobela beltz soila dela esan badu ere, oraingoan ere ez dio uko egin orotariko gaiak narrazioaren harian josteari, gehienetan hausnarketa mamitsu, txinpartaz beteak eskainiz : egungo sukaldarien pretentsio artistiko eta goranahiez edo *Bazkaltzaindiaz* (*Euskal karma*-ko estilo satirikotik hurbil), ezleku antropologikoez nahiz maitasunaren eragin baltsamikoaz. *Zintzoen* eta *gaiztoen* arteko banaketaren faltsua eta aldakortasuna da nobelako motibo konstanteetakoa, dela pertsonaien gogoetetan, dela pertsonaien garapenean berean. Aitzitik, nobelaren tramatik gogoetetara maiz dagoen jauzi handiegian galtzen du nobelak, irakurle honen iritzian, sinesgarritasuna eta trinkotasuna. Ez zaio sinesgarri egin abokatuak eta Enekoitzek afari batean Euskaltzaindiaren ospakizun bateko menua edo Cunqueiro hizpide hartzen dituztenekoa, ez eta pistola baten mehatxupean, protagonistak *Diario de Navarra*-n eskela jartzeari buruz egiten duen bizpahiru orritako digresio ironikoa ere. Era berean, narratzailearen hainbat kezka –diglosiari edo literaturak gaurko gizartean betetzen duen lekuari buruzkoak, esaterako– Jon Alonso idazlearenak begitandu zaizkio, ez Enekoitz Ramirez pertsonaiarenak. Halaber, zenbaitetan istorioak eskatzen dituen bideetatik aldendu eta argumentua bihurritu egiten duela dirudi, egileak landu nahi dituen zenbait gairi lekua egiteko.

Egileak nobela beltz soila dela esan badu ere, ez dio uko egin orotariko gaiak narrazioaren harian josteari, gehienetan hausnarketa mamitsuak eskainiz

Gozatu dut, eta barre egin, Alonsoren gogoetekin. Gozatu dut, halaber, bukaera aldera, nobela beltzago bilakatu eta pertsekuzio eta guzti, generoari estuago lotzen zaionean. Baina tartean erdibidean geratu eta osagai ezberdinegiak plater berean eskaintzen zaizkigula iruditu zait, elkarrekin ongiegi lotzen ez direnak.